



Goibek kale

Elgetako aldiakaria otsoila 54zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

**Mozorrotzeko
egunak martitzenian
eta barikuan**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Maya ingurugiro taldea sortuta

Elgetako ingurugiroa dela eta arduratuta dauden herritar batzuk, Angiozarko ordezkari batekin batera MAYA ingurugiro taldea eratu dutenaren berri eman nahi dizuegu. Honekin batera zuen iritzia ematera eta partehartzera animatzen zaituztegu. Informazio gehiago nahi izanez gero edo zerbait gaineratu nahi izanez gero liburutegira hurbildu zaitezke.

MAYA Ingurugiro Taldea

Ardi izateko jaiok ote?

1 Gertaeren hariari tiraka: ETAK su-etena hautsi EAJ eta EA kritikatu. Lehenengo lehergailua jazarpen mediatiko, judicial eta poliziala zegoela eta. Bilboko manifestaziora "batera", baina nahastu gabe (zenbat jende ez buru eta ez buztanean?). 27ko huelga-egun minoritarioa. Bi hildako Gasteizen. Orain, abstentzioa; ez ote da izango hari horren askaezinezko beste korapilo bat?

2 Abertzaleok ematen ez dugun boz bakoitza inperialismoaren alderako ez ote da?

3 Bozkatu Espainolak ginatekeela eta... eta espainolak edo frantsesak gara karnet batek hala dioelako? Edo gure arteko asko frantsez edo espainiar armadara joan zirelako espainiar edo frantziarrak al dira? edo gure aita-amek noizbaiten "Cara al sol" kantatu zutelako espainolak al dira? Ez, ez eta ez!

4 Azkenengo huelga-egunak ezertarako ere balio izan ez zuen bezala (ez indarrak batzeko, ez eta, mugimendua bera indartzeko) zer lortuko da abstentzioarekin? Berriz ere zatiketa?

5 Abstentzioaren eragina Aranban eta Nafarroan?

6 Egiten diren ekintzen aurrean esan, (azkenengo zarotza bertatik bertara sentitu nuen) politika politikatik konpondu beharra ikusten dudala, edo ez? Azkenengo ekintzek, Espainolen geldi-egote ulergaitz eta onartezinari arnasa ematen diote. Beraien betiko argudio errepikakorrek zentzuan irabazten dute bonba bidez PP eta PSOERI eginiko erregaloeekin.

7 Ba ote dauka inork zalantzarik absurdia dela kutxazainak eta alderdi politikoen topalekuak erretzen jarraitzea?

8 Haien kontrako jokabiderik egokiena abertzaleen batasuna dela zalantzan jartzen duenik ba ote dago Euskal Herrian?

9 Gauden egoeran ez al da garrantzitsua abertzaleen aldeko bozak inondik ere ez gutxitzea.

10 Zergaitik aurkeztu gara orainarte Madrilan eta orain ez? Abstenitzeak ez du sostengu zabalik, ez nabarmenik, ez erabatekorik. Beraz, non geratzen da eraginkortasuna?

11 Hamaika arrazoi omen daude abstentziorako eta batzuk, zergaitik ez esan, badute zentzuaren arrastorik. Hala ere, zentzuzko izateak pisua izan dezan, beste alderdiekin adostuak behar lukete izan. Gaur ezin dela? ba, hurrengoan.

Ez da egokia minoritarioa den alderdi batek Euskal Herriaren izenean abstentzioa eskatzea. Ardi izaten asko bizi badira ere ez dago ardi nahikorik abstentzioa eskatzeko. Onena, duda barik, artzainen arteko adostasuna bilatzea da. Bitartean, dauden bide duinenekin jokatu behar, momentuz.


Artzainen aurrean *Betibeeeeee* egitea ez da zuzena. Kasu honetan zein bestetan norberak aukeratzea da egokiena.

Iban Arantzabal Arrieta

INTXORTA



**ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.**



AENOR



Empresa Registrada


ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi z.k.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxe.: 94 6231928



Berrido be kaka!

 iñ dala hillabete edo, mendira egin giñuan urtenaldi bat; Hau jardunau, Elgetako Gaztetetik antolatu zan eta beronen helburua Elgetako baserri-mendi bidien inguruak garbitzia izan zan.

Aurten, Elgetako Udaletxiak etara daben herriko mendi ibilbidien mapa txukuna ikusi dogu politto aurkeztua, argazki eta testuekin. Hau lanau ibilbidian ifiñittako seiñaliek in osatu da, bidiak ezagutzen ez dabenen-tzako oso erabilgarriak.

Honek ibilbidiok erabiltzen dittuanak sarritan ikusten ditte kamiño baztarrak zikiñakiñ beteta, ez bakarrik jente askok heren fan-etorrixetan erabiltzen dittuezen bidiak, eskutuan daren makiñatxo bat leku be basuriakin gaiñezka agertzen jakuz. Hau danau ikusitta, ahal dan neurrixan, herriko mendi ibilbidiok txukundu eta garbitzia pentsau da. Holan ba, dozena bat lagun mendira fan giñan Eguarbitza, Azkonabitza eta Karabittako inguruak txukuntzera. Han batutakuen zerrenda bat egittia luzetxua eta iguingarria izan leikenez ez dittut aittatu be egiño.

Dozena bi sakukada edo batu giñuzen eta gero, Udaletxeko langilliak herrira ekarri. Hurrengo be lanian jarraitzeko prest bueltau giñan.

Harrezkero, aste batzuk pasau dira, eta hara nun hasi diran berriro be, udabarriko perretxikuen letxe, han eta hemen, hainbeste batzia kostau jakuzen haren seme-alabak; esporak ete dakez ba, mendixan botatzen dittugun zikiñok?


Luze pentsau ostian hau ondorixuau etara dot: Euskal Herrixan bizi gazen makiña batek ez dakagu ez errespeto eta ez begiruneik, eta zikiñ haundi batzuk gara.

Positibua: Lehenengua, atzo, Elgetako andra kuadrilla baten atzetik nentorrela, gura barik papel bat jausi jakon bati eta bixkor jaso zeban berriro poltsikora. Eskerrak Elgetarrok garbixak gazen! Bigarrena, lan gogorra izan arren garbitzera agertu ziran umiak. Ia ba hurrenguan jente gehixago batzen dan eta pentsautako lana aurrera eroaten dogun. Ondio hasi besteik ez dogu egiñ.

Daniel Gillegi



Txakolindegia

 raingo honetan kostaldera joatea suertatu zitzagun. Bertan egiten da Getariako txakoliña. Txakolindegiek ez dute sagardotegiek hainako izena,

txikiagoak ere badira eta nagusiaren ezagunak soilik joaten dira gonbidatuta.

Sagardoa bezala ziritik edaten da fresko-freskoa, hamar gradutan eta beste horrenbeste gradu ditu alkoholean ere.

Txakolina, ziritik hartzean lurretik, urrundik baino gertutik, ziri ondotik, hartu behar omen da. Aparra irten behar omen zaio eta baita berehala kendu ere.


Aparrik gabekoa eta aparra desagertzen ez zaiona ez ei ei da ona. Mahats falta dela eta txakolina zisternetan ekartzen omen dute gauez, inork ezer ikusi ez dezan. Horretaz gain, produktu batzuk ere sartzan omen dizkiete, adibidez gasa, txanpainaren tankera emateko.

Etxeko nagusiak sarri irekitzen du kupe-la eta kupel bakoitza bestea baino hobea dela esanez gainera. Inguruko denak erdi mozortzen ditu eta azkenean inor ez da enteratze, gu bezalakoak ez behintza, zein den ona eta zein txarra. Hori bai, txakolina boteiletan sartu eta ondu egiten dela esan zigun nagusiak.

Nik, nire partetik, gonbidapenik izanez gero aprobetxatzeko esango nizueke eta azkar ibiltzeko, zeren "Etxetxo" baserrian hilaren 27an isten baitzuten tenporada.

Hori bai, kontuz gero! Sagardoa bezain erraz edan eta zepeliña bikoitza harrapatu daiteke eta!

Maite Retolaza

 kutxa

gizarte-ekintza
obra social



Eusko Jauriaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du

Aldizkari honen
argitaratzailea

GOJBEEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko Kultur Elkatea. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erosarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarrrieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarrrieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Gaztetxiak 4 urte

Martxoak 18an Betagarri taldearen kontzertua

Herriko gazteek 1993an sortu zuten EGA. Taldeak egindako lanaren ondoren ekintzak egin eta biltzeko lokala lortu zuten. Dagoeneko 4 urte bete ditu Gaztetxeak eta ospatze alderakintza ugari antolatu dituzte.

Martxoak 3rako Mozorro gaua antolatu dute. Iluntzeko poteoaren ondoren, afaria izango da Bolatoki tabernan. Gaueko 00:00etan, "MAL DE OJO" taldeak alaituko du giroa, bere doinu runbe-roekin. Adin guztietako jendea mozorrotzera gonbidatuta dago beraz. Goizaldera pulso txapelketa izango da, dopina neurtuko duten medikuak ere bertan izango direlarik.

Martxoak 10ean, gaueko 22:00etan Juan Luis Zabala idazleak, "Galdu arte" liburuaren aurkezpena egingo du diapositiba emanaldiarekin batera.

Emakumearen eguna martxoak 11n ospatuko dute. Arratsaldeko 17:00ak aldera, emakumearen gaia aztertuko duten dokumental batzuk proiektatuko dituzte Gaztetxean. Iluntzean urteroko merienda izango da eta gaueko 22:00etan Mikel Telleria,



Jokuak, hitzaldiak, kontzertuak, emakumeen eguna, karnablak, haurren eguna... hamaika ekintza laugarren urteurrena ospatzeko.

kantari Gasteiztarraren kontzertua.

Martxoak 18an Gaztetxearen 4. Urteurrena ospatuko da. Eguerdiko 14:30etan bazkaria izango da, Txartelak Hai-zea eta Patxi tabernatan ea Gaztetxean erosi daitezke 1.700pta.ren truke. Bazkariaren ondoren jokuak izango dira. Gauean Betagarri taldearen kontzertua izango da Gaztetxean.

Martxoak 25ean Umeen eguna izango da. Urtero bezala goizean mendira joango dira haurrak Gaztetxekeo begiraleekin. Menditik bueltan Guraso

elkartek gertatutako bazkari goxoa prest egongo da. Bazkariaren ondoren Antzerkia izango da haurrentzat. Izena liburutegian eta Ana Mari Liburu d e n a d a n eman daiteke.

Martxoak 31n, gaueko 22:00etan Mexikoko, Txiapansen gaineko dokumentala proiektatuko dute Gaztetxean.



Haurrek ere beraien lekua izango dute urteurrenean.

EH
Euskal Herriarrak

nazio bat garelako
intsumisiaioa espainiari

abstentzioa

Danok mozorrotzera

Mundakako karnabala antzeztuko da Elgetan martitzen karnabalean

Aurten, Martxoaren 7an, Martitzen Karnabal egunean, Mundakako Karnabala antzeztuko da Elgetan. Mundakan, Karnabalak era bitxian ospatzen dira. Bertan neskak Lamia jazten dira eta mutilak Ator. Elgetan ere horrelaxe jazteko asmoa dago eta Udaletxeak kalean jarritako iragarkietan azaltzen da zelakoa den bakoitzaren jantzia.


Arratsaldeko 3:30etan elizpean elkartzeko deia luzatu da. Jarraian kalejira egingo da trikitilariekin, jolasak egingo dira plazan umeentzako eta amaitzeko merienda egongo da. Esan beharrik ere ez dago sekulako merienda emango dutela.



laz, mozorro asko ikusi ahal izan ziren eta gehienak ikusgarriak bezain erakargarriak.

Bariku Karnabala Gaztetxean

Martxoaren 3rako, barikua, Gaztetxeak karnabalak ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu. Hasteko afaria egingo da Polikiroldegian. Txartelak salgai daude Haizean eta Polikiroldegian bertan eta epea Otsailaren 27an amaitzen da. Gauean, 00:00etan "Mal de ojo" taldearen eskutik kontzertua izango da Gaztetxean bertan. Adin guztietarako moduko musika da eta giro aparta espero dute Gaztetxeakoek. Goizaldeko 3:00retan Pultso lehiaketa izango da parte hartu nahi duten guztientzako.



Neskak Lamia eta mutilak Ator mozorrotuko dira.

Buztin eta Txistu ikastaroak antolatu dira Elgetan

Txistu ikastaroa: Txistu ikastaroan izena emateko azken egunak. Ekintza honetan parte hartzeko asmoa daukatenak lehenbailehen liburategian eman behar dute izena, izen emateko eguna pasatzeaz baitago.

Buztin ikastaroa: Buztin ikastaroan izen emateko eguna ere pasatzeaz dago, horregatik ikastaroan parte hartzeko asmoa daukatenak lehenbailehen izena eman dezala liburategian. Aipatu ikastaroan lehenago ikastaroan parte hartu zutenentzat jarraitzeko bidea eta hasi nahi dutenentzat aukera dela

Udaletxeko Kultura Batzordeak antolatu ditu bi ikastaroak.

Bertso saioa antolatzeko bilera

Martxoaren 10ean, barikua, arratsaldeko 7:00etan bilera egingo da Udaletxean bertso saioa antolatzeko. Bertara nahi duen guztiak joateko aukera izango du. Bertso saioak lehenago ere egiten ziren eta ohitura hori berreskuratu nahi da kultura batzordetik. Bilera horretan erabakiko da zein bertsolari etorriko diren, nor izango den gai jartzailea eta zeintzuk izango diren gaiak. Bertso saioa noiz egin ere bertan erabakiko da.

Bertsozale guztientzako deia luzatua dago, beraz.

INAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 850 pzta.
Karta.

Udaletxeak hiru lanpostu atera ditu

Kultura, euskera eta turismoko teknikaria, Kirol teknikaria eta Administratibo kontulariaren lanpostuak dira Udaletxeak kaleratuko dituen lanpostuak. Uztaileko, lan haue-
tan jardungo dutenak aukeratuta izatea espero dute.

Kultura, euskara eta turismoko teknikari lanpostua egun osokoa

izango da. Kirol teknikari lanpostua egun erdirako izango da eta administratibo kontulariaren postua sei ordutarako dago aurrikusita. Martxoaren hamabosterako lanpostuak Gipuzkoako Buletinean azalduko dira eta hogeituneguneko tarteak izango dute nahi dutenek, lanpostu haue-
tara aukeratzeko. Lan bakoitzera aurkezteko ikasketak batzuk eginak


izan beharko dira. Kultura, euskara eta turismo teknikaria izateko Unibertsitate diplomatura edo antzerakoa izan beharko da, Kirol teknikaria izateko hezkuntz fisikoko magisteritza edo hezkuntz fisikoko lizentziatua izateko karreraren lehen hiru urteak gaindituak izatea eskatuko da eta administratibo kontablearen lanposturako FPII edo gorengoko ba-

txilergoa izatea. Lanpostu bakoitzera aurkezteko behar diren baldintzen berri gehiago jakiteko Udaletxera joan zaitez-
kete.

Aurkezten diren artean bete beharreko istantziak bete eta gero frogak egingo dira. Frogen emaitzekin, uztaileko teknikariak aukeratuak izatea espero dute Udaletxean.

Etxebizitza berriak eraikitzen

Laister hasiko dira etxebizitza berriak egiteko obrak Elkoro zaharra tailerra dagoen lekuan. Bertan 9 etxebizitzako blokea jasoko dute garage eta guzti. Obrak oraintxe hasi eta urtebete inguru irautea espero da. Jarraian, 2.fase batean, beste hamabost etxebizitzako blokea egiteko asmoa dago. Horretarako Zeleta zaharra tailerra botako dute eta bertatik San Roke Ostetik datorren bidea zuzen pasatuko da Kantoikuan dagoen errebuelta arriskutsua kenduta. Laster mila biztanletik gora izateko aukera dago.



GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

Goibeko K.E. Goiena egitasmoan buru-belarri

125 bazkidek eman dute izena Goibeko Kultura Elkartearen Lehenengo produktua kalean izango dugu martxoaren 13an, GOIENKARIA

Hilaren 18an liburutegian egin zen batzarrean Goibeko K. E-ko bazkideek, baietza eman zioten Goiena Kooperatiban parte hartze-ari eta honen kapital sozia-lera beharrezkoa izango den ekarpena egiteari.

Batzarrean 125 bazkide inguru izan arren 45 bazkide-edo batu ziren. Oraindik ere bazkide egiteko aukera dago gura izanez gero. Liburutegira hurbildu besterik ez duzue.

Bazkide guztiak

ahobatez onartu zuten, Goibekoren jarduna, zein estatutuak. Bestealde, Goiena egitasmoaren parte izatea ere erabaki zen.

Erabaki horren osteko lehenengo emaitza martxoaren 13an ikusiko dugu, Goienkaria aterako baita hauteskundeen gainekoak era egokian jasotzeko. Plaza barrenean, kioskoan eta eskolan ere banatuko da doan.



Bazkide guztiak baietz esan zioten Goiena proiektuari. Baietz horren lehenengo emaitza GOIENKARIA izango da. Hauteskundeen nondik-norakoa jasoko du eta doan eskuratu ahal izango da.

Martxoak 12ko hauteskundeak

EAJ eta EA-k botua eman behar dela dioten bitartean EH-k abstenitzioaren alde egingo du. Gure herriko Udaletxean zinegotziak dituzten alderdi politikoeekin egon gara eta hauteskundeen aurrean hartu duten jarrera kontrajarrien inguruan jardun dugu.



Hauteskundeetan bozkatzeko eskatzen dugu. Bozkatzeko eskatzen dugu, bizi dugun egoeraren aurreangarrantzitsua delako.

Egoeraren aurrean arduraturik egon arren hauteskundeak ilusioz hartzen ditugu, denon artean lanean aurrear jarraituko dugu.

Guztiok batera bakea lortzeko bidean. bozkatzeko eskatzen dugu, guk dugulako erabakia.



"Hauteskunde hauetan ez bozkatzeko eskatzen dugu, lehenik eta behin euskaldunak garelako. Euskaldunontzat euskal demokrazia eskatzen dugulako.

Gainera, Espainiako parlamentuan bost, lau edo zazpi diputatuk 300en aurrean ezer gutxi erabakitzeke aukera dutelako.

Ez bozkatzea eskatzen dugu euskal instituzioak bultzatzeko lehenengo pausoa delako. Ezker aber-tzalea aintzindari izango da, hemendik lau urtetara alderdi abertzale bat ere ez dela aurkeztuko hauteskunde hauetara pentsatzen baitugu".

Jarri zure iragarkia

Tel:78.90.85



Elizamendiko Ama Birjina, Martxoaren 25ean

Elizamendiko Ama-Birjina (Mainddao auzoa)

Umeen eta haurdun dauden emakumeen bedeinkazioa

Aurten hasiko dira, behingoz, Elizamendi konpontzeko lanak ere. Hasieran egin beharra dagoen ikerketa topografiakoak badauka aurrekontua, 500.000 ptakoa da berau. Ikerketa topografiakoak esango du zein den Elizamendik daukan arazoaren arrazoa: lurpeko urak, lurren korrimendua, harkai-tzaren etena edo beste zerbait. Behin arazoa zehaztu ondoren konponbide egokiena adostu eta lanei ekingo zaie.

Elizamendi berrizteko proiektua orain dela hamabost urte egin zen, baina ezin izan da aurrera eroan, bitartean, eraikuntzan zein inguruan nabarmendu diran arazoenengatik. Bestalde, instituzioen alde tik ere ez da aurrerapenik ikusi, nahiz eta kultura diputatua, Koruko Aizarna, izan zen eliza ikusten. Angiozartik bakarrik ezin zen aurre



egin proiektuak daukan aurrekontuari. Oraingoan badirudi gauzak bide onetik doazela eta zerbait gauzatuko dela. 2001erako Elizamendiko jaiak bertan ospatzeko helburua ezarri da, ea egia bihurtzen den!

Haur eta guraso mozorrotzeko gertu

Aurten ere ospatuko da martitzen karnabal hilaren 7an. Gurasoek ere jantzita ateratzeko asmoa daukate umekin batera. Urteroko antzerkitxoak ere egingo da eta iaz trogloditen antzezlanak ikusi bagenuen ere, aurten, ezuztekoa izango da. Nork daki eskainko diguten? Arratsaldeko laurak aldean zita eginga dago plazan. Jakin badakigu arrakasta izango duen beste ekintza bat, ondoren, elkartearen, egingo den txokolatada, hain zuzen.



Auzoak elkartzeko bideak egiteko sinardura batzea Goimendi eta Zabaletamenditik Angiozarko kalera bideak egiteko firma biltzeari ekingo zaio datorren hilean, behin Angiozarko Bailarako Batzarrrak bere hileko bileran formatoa onartu ondoren.

Aurten egitea espero diren bi bide hauek bi kilometroko luzera daukate guztira eta herritarren arteko harremanak indartzeko ezinbestekoak ikusten dira. Esan besterik ez dago Goimenditik dauden gaur egungo hamar kilometrotatik hiru kilometrora jeisten dela Angiozarko kalera egongo den distantzia bide berria eginda.

Laster kaleratuko dira sinadurak batzeko papertxoak



Frontoian konponketak egin dira

Bi astetan itxita egon da frontoia, pilotak bote faltsua ematen zuela eta. 5 eta 6 kuadroen bitartean lurrean sarketak egin dituzte eta silikona ere erabili dute zementu artean geratutako airea kanporatzeko. Konponketa hauen aurrekontua milioi batekoa izan da eta pentsatzekoa da udaberri aldera partida interesgarriak jokatzea bertan.

Bestalde, teilatuan itxoinak agertu dira pilotalekua irailean inauguratu zen arren eta horri ere aurre egin zaio.

Martxoak 11n auzo-lana

Auzolanean kanposantu ingurua garbitzera hurbiltzeko deialdia egin du Angiozarko batzarrak. Auzo hauetan auzo-lanak duen garrantzia handia da eta martxoak 11n, zapatua, goizeko 9:00etan plazan elkartuko den jendea asko izatea espero da. Egongo da lana egingo dutenentzako pizgarrikerik ere elkartearen. Bestetan ere jende asko animatu izan da eta oraingoan ere deia aurrikuspenekin zabaltu du Angiozarko alkateak, Mila Elortzak.



Kamisetak erregalatzen jarraitzen dogu, baiña beti ez da posiblia izaten... Oinguan ez dau inok eruango kamisetaik etxera, izan be, eta guk erreza zala pentsau arren ez dau-eta inok parian jo.

Kamisetia lortzeko gurera idatzi eta zertan zihar-
duen esatia besteik ez zeuan, baiña kale. Erretratua ikusitta erreza da, ezta?

Oingua erretxuaua da eta gaiñera pista on bat be emongo dotsuegu. Gaztetxian egondakua da eta bera ikustera jende mordo bat fan zan. Sekula baiño jende gehixau batu zan hor egunian. Askoz gehixau esatia komeniko ez dala-
kuan ez goiaz pista gehixau emotera. Zein da erretratuan ageri dana?

Erantzuna badakixu hartu boligrafua eta hasi idaz-
ten. Gure zuzuenbidia Betikua da:

Goibekokale aldizkarixa, Salbador kalia 2. Kultur Etxia.
posta-elektronikua: goibeko@topagunea.com



Poesigintza

Zer da poesia?

Seguraski jende asko jarri da galdera honen aurrean erantzun baten bila, baina ez du benetako erantzun bat bilatu.

Literaturaren itsaso zabal bezain erakargarrian nabigatu nahi duen jendearentzat, "poesigintza" izena duen bidaiuntzia izan daiteke akaso garraibiderik aberasgarriena bat. Olerkariak maitasuna, heriotza, edota herriminaren aurrean sentitzen ditugun eragingarri berdintsuen ondorioz sortu zituzten euren lehen olerkiak.

Poesigintza denborak aurrera egin ahala "modernizatzen" joan da, gainera poeta kultoen arte lana izatera ailegatu da.

Esan dezakegu inor ez dela amaren sabeletik idazle jaiotzen. Idazle izate-

ko lan egin behar da, eta horrela, egin dute euskal olerkariak, Letek, Lizardik, Artzek,...

1853. urtean Abbadiak lehen aldiz Lore jokoak antolatu zituen Urruñan. Jai folklorikoak ziren: pilota partidu, ganadu txapelketa eta abarrek nahasturik, literatur sariak ere ematen zituzten. Literatur lehiaketa hauetan aurkeztutako lanak bertsolaritzaren iungurukoak genituen.

1879. urtean Elizondon antolatzen ziren Lore jokoetan Felipe Arrese Beitia-
ren "Ama euskeriari azken agurrak" poesia gertatu zen irabazle. Hemen esan daiteke hasten dela poesia modernoa Euskal Herrian. Poema honek gai aldetik eten bat suposatu zuen: herriaren kez-
kak agertzen zituen.

1930ean beste gertakari aipagarri

bat dugu, Aitzolen gidaritzapenean poeta talde bat bide berriak urratzen hasi ziren; "olerkariak" ziren. Talde honen helburua literatura jasoagoa egitea zen elkar ezagutzen zuten eta elkarri laguntzen zioten. Bertsolarien bidea jarraitu behar-
rean neurtze sistema berria asmatu zuten.

1936-39 bitarteko Espainiako Gerra Zibilak mugimendu hau amaiazatu zuen, hurrengo urteetan literatura lantzea eragotziz. Ondoren, Bigarren Mundu Gerrak (1939-45) ere izango zuen eraginik. Poemagintzari dagokionez, 1950. Urte-
tik aurrera bi joera ditugu: bat gerraurreko moldeen jarraitzaileena; eta bestea, bide berriak jorratzen saiatzen dena. Azken hau krutwig-ek urratu zuen.

Bi aldaketa nagusi ezarri zituen,

alde batetik hizkera, Leizarragaren lapurteran oinarritua; bestetik, gaia edo edukia, federik eza eta euskal literaturan mendeetan zehar oinarri izan den katolizismoaren aurkako jarrera. Bigarren joera honen jarraitzaile izan zen Mirande, euskal poeta onenetarikoa.

Goboratzen zarete poesia eder honetaz? Jakinmina? Astindu zuen liburua!

"HARRI ETA HERRI"

Nire aitaren etxea
Defendituko dut.
Otsoen kontra,
Sikatearen kontra,
Lukurreriaren kontra,
Justiziaren kontra,
Defenditu
Egingen dut
Nire aitaren etxea.
Galduko ditut azien-
dak
Soloak,
Pinudiak;

Jarraitu nahi baduzu, mugitu ipurdia eta irakurri!!

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berrazondokua Zg 20690 Elgeta
P.K. 255 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
A
S
T

San Roke 6
tel: 768168.

Ezkontzen gehigarria



...eta kitto!, drogetenitturri, goibekokale eta Pil-pilean aldizkarien

EZKONTZEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibar, Elgeta, Ermua eta Soralezeko aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun EZKONTZEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia eta Soraluzen banatuko dugu ale berezi hau.

11.000 ale kaleratuko dira, 28.000 irakurle ingururendako.

3. zenbakia

2000ko udaberriko gehigarria

PUBLIZITATEA: *Mertxe Agirre*. DISEINUA ETA MAKETAZIOA: *Koldo Mitxelena Zumaran*. TESTUAK: *Silbia Hernandez*.

Tirada: 11.000 ale. Tel. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 67 76



Jantzi egokia aukeratzearen garrantzia...

Aukeratzten den ezkontza motak garrantzi handia izango du senargaien jantzia zein izango den aukeratzeko orduan, batez ere emaztegaiaren kasuan. Ezkontza zibiletan oso aukera zabala dago: soineko mota guztietatik hasi eta trajeetatik igarota, hamaika aukera daude forma, kolore eta ehunetan.

Elizaz ezkontzean, ordea, oraindik ere tradizioa da nagusi: lehenengo ezkontza bada, emaztegaiak soineko luzea eramango du, zuria edo krema kolorekoa gehienetan. Lehenago ezkontuta egon bada, soineko motzarekin ezkontuko da emaztegiaia.

Soinekoa probatzera joateko orduan, ezkontza egunean eramango den barruko erropa eta zapata berak eramatea gomendatzen dute: zapatak aurretik erabili behar dira, ezkontza egunean minik ez egiteko. Eskoteak ez du

handia izan behar, dotoreagoak direlako eskote txikiak. Beloa eramaten bada, soinekoaren luzeera bera izan dezake edo laburragoa.

Gizonaren kasuan, tradizioari begiratuta, txakea gomendatzen dute protokoloan adituak direnak: korbata grisa, txaleko grisa edo beltza eta zapatak ere beltzak, kordoiekin eta apaingarririk gabe. Trajea nahiago izanez gero, dotereena kolore iluna da: gris iluna edo beltza. Oso ohikoa ez bada ere, batzuk smoking-a aukeratzen dute; kasu horretan, korbata jantzi beharrean pajarita da aproposena. Edozein kasutan ere, mokasin erako zapatak *debekatu* daude ezkontza egunerako.

Trajea berriz erabili behar bada merezi du erosteak, baina askok alokatu egiten dute. Batz best 20.000 pezetan lortu daitezke traje itxuroso bat.



JULEN ARGAZKIDENDA



- ✕ Arriagan izandako arrakasta eta gero, Azpirik Udaberri eta Udako traje kolezio berria aurkezten dizu.
- ✕ Diseinu berriak
- ✕ Marka berriak
- ✕ Preziorik onenak
- ✕ Sastreria Azpirik larruzko erropak, frakak, sport-a, alkondarak... dena erakusten dizu esposizio berrian

Etopri zaituz!

Arragueta 3
EIBAR

Telefonoa
943 20 74 17

Erakusketa-lekua laster zabalik: Arikitxa 1





*Edozein motako ospakizunetara
ondo jantzita joateko: ezkontzak,
jaunartzeak, bataioak... bisitatu...*

Gutiérrez
JOSTUNDEGIA

Zubiaurre 30. ERMUA

Tel. 943 17 01 80



Valenciaga

Zuloagatarren 1
Tel. 943 20 22 33



Senargaiak
eta ezkontzako
gonbidatuak
janzteko
prestatuta
gaude

EIBAR


Barruko erropa ere zaindu behar da

Barruko erroparen kasuan ere, gizonaek buruhauste txikiagoa dute. Emakumeen kasuan, berriz, aukera gero eta zabalagoa da. Eramango den soinekoaren arabera barruko erropa eramango da. Koloreetan hamaika aukera badago ere, oraindik ere zuria da erabiliena. Izan ere, kasu gehienetan soinekoa kolore berekoa izaten da.

Soinekoak eskote zabala badauka, horri egokitutako barruko erropa jantzi behar da: garrantzitsua emaztegaiaren figura liraintzea da eta, horrekin batera, ez da bat ere dotorea gelditzen soinekoak ez badu barruko erropa estaltzen.

Bestalde, gaur egunean figurari nahi zaion forma ematen laguntzen duen barruko erropa ugari dago. Bularraldea igotzeko eta bolumen gehiago emateko bularralde bereziak daude. Wonderbra famatua eta gero, azken beritasuna silikonako bularretakoa da: betiko erreilenoa alde batera laga eta silikonaz bete dituzte bularretako batzuk, bolumena handitzeko. Gorputzari ezinhobeto egokitzen den materiala denez, oso modu naturalean aipatzen du.

Kontrako efektua lortzen duten bularretakoak ere badaude, eta gaur egun ez dira sasoi batekoak bezain zurrnak: jende gaztearendako oso egokiak diren forma eta koloreak egiten dira orain.



Angela

Konfekzioak

60 tailarainoko erropak!

Zubiaurre 16 - Tel. 943 17 09 06 **ERMUA**

Neurrira egindako jantziak

Aukera zabala senargai eta gonbidatuendako

Astigarraga

Bidebarrieta 8
Tel. 943 20 22 23
EIBAR

B&P
Bergara Piel

*Ospakizun berezietarako...
...jantzi zaitez Bergara Pielen!*

Espolon pasealekua 6
Tel. 943 76 20 70
BERGARA

ROCA Ezkontza egunerako guztia zure esku!

F. Calbeton 16 (EIBAR) 943 20 80 06



Iritsa

*Ezkontza-egunean
ezin hobeto
jantzita egoten
lagunduko dizugu*

Arragueta 9
Tel. 943 12 71 06
20600 EIBAR



Bidebarrieta 62
Tel. 943 12 70 21
20600 EIBAR

*Jantzirik
dotoreenak
zuretzaiko!*

DOROTI



ARRIETA

*Gizon eta
emakumeendako
erropak*

7. Etxebarria 14
943 20 69 29
Errebal 22
943 20 20 24
EIBAR



Ondo dagoena, beti ondo...

Protokoloa, nahiz eta batzuen iritziz zaharkituta egon, oraindik ere jarraitu beharreko zerbait moduan ikusten dute beste askok. Edozein modutan ere, jarraian aipatzen ditugun hauek dira protokolo tradizionalak agintzen dituen jokatzeko moduak.

Senargaia beti iritsiko da elizara emaztegaia baino lehenago. Emaztegaia aitabitxiaren besoari helduta sartuko da eta, beloa badarama, aurpegia horrekin estaliko du. Gonbidatuak alde zurretik elizan jarrita itxarongo dute.

Behin eratzunak eta arrak elkartrukatu eta gero, elizatik irtetzen lehengoak ezkonberriak izango dira. Gonbidatuak euren atzetik irtengo dira elizatik.

Automobilean nola jarri behar den ere argitzen du protokoloak: ezkondu baino lehenago, emaztegaia atzeko jarlekuan joango da, eskubian jarrita. Haren aldamenean, ezkerreko jarlekuan, aitabitxia jarriko da. Baina, behin ezkondu eta gero, senar-emazteak elkarrekin jarriko dira atzeko aldean; aitabitxiak lehenago erabilitako tokian jarriko da senarra.



Protokoloarekin batera, inoiz aldatzen ez den beste zerbait ere bada: siniskeriak. Gai baten inguruan siniskeriarik badago, gai hori ezkontzena da. Betidanik esan da ezkontza ondo irtetzeko ezin dela martitzenean ospatu. Horren arrazoia historian bilatu behar dugu: Astrologiari begiratura, asteko egun horretan Marte da nagusi, erromatarren gerraren jainkoa; historiari begiratura, borroka garrantzitsuak galdu ziren martitzenetan eta horregatik ez da oso gomendagarria martitzenetan ezkontzea. Dena dela, gaur egun

gehienetan zapatuan ezkontzen da jendea. Orduari dagokionez, eliza batean ezkontza bat baino gehiago egiten denean egun berean, lehenengo ezkontzen den bikoteak besteak baino zorte hobea izango du.


Zerbait berria, lagatako zerbait eta kolore urdineko beste zerbait eraman behar omen da: lagatakoak, biderkatzaren diren gauzak adierazten ditu; berriak, lorpen eta objetiboak eta urdinak, berriz, emaztegaia zerutik gertu egoten lagunduko dio.

ERLOJUDENDA - BITXITEGIA

SALABERRIA

Zure ezkontza egunerako osagarririk onenak

Errebal 22
Tel. 943 20 20 79
20600 EIBAR



Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

Bidebarrieta 28
Tel. 943 20 79 73



20600 EIBAR

fasprint

Inprimategia

Ezkontza Gonbidapenak
txartelak, gutunak, albaranak,
fakturak, papergintza orokorra...

Tel./Faxa: 943 20 16 13 - Ego Gain, z/g - EIBAR



EZKONTZETARAKO GONBIDAPENAK
LEHENENGO JAUNARTZEKO GONBIDAPENAK
-ESKATU KATALOGOA-

Bidebarrieta 46, behea - 20600 EIBAR
311 postakutxa - Tel. 943 20 86 12 - Faxe. 943 20 88 23



DISEINU BERRIAK ETA ORIGINALAK

- Urre zuria eta horia
- Platinoa
- Diamanteak
- Perla kultibatutak
- Perla australiarrak
- Tahitiko perla grisak
- Erlojuetan:
Mathy Tissot (18 (kte)
GUESS
Alfex
Up to you
Paco Rabanne (berria)

dirdac

Julian Etxebarria 18, behea 943 20 64 07

ANTXON DEGUSTAZIOA

- Ezkontza eta jaunartzeetarako
TARTA eta OPARIAK
- Pintxoak, ogia, artisau gozotegia...

TORIBIO ETXEBARRIA 13
☎ 943 20 63 22 / 943 20 05 47



ETERNA

Erlajuaren agente ofiziala

Egurrola

Bitxitegia

Valdespina markesa 8 Tel. 943 17 04 64
48260 ERMUA



AGUIRRE

BITXITEGIA

Gizonezkoendako urrezko Viceroy erlojua
11.364 pezeta hilean
Emakumeendako urrezko Viceroy erlojua
9.091 pezeta hilean

Estaziño Kalea, 10

EIBAR



Marroddan

BITXITEGIA

Toribio Etxebarria 24
Tel. 943 20 73 04
20600 EIBAR

Ispilu, ispilutxo... zein da ederrena?

Gaur egungo gizartean edertasunak garrantzi handia badauka eguneroko bizimoduan, horrelako egun berezietan are garrantzitsuagoa da inoiz baino ederragoa izatea, batez ere emaztegaiaren kasuan.

Aldez aurretik ezkontza egunean eramango duen orrazkera eta makilaia probatuta egoten da. Egokiena, adituen ustez, makilaiaz eta orrazkeraz arduratuko direnak ezkontza egunean emaztegaiaren etxera joatea litzateke. Hala ere, praktikan oso gutxi dira horrela jokatzeko dutenak. Gehienetan, ezkontza eguna baino lehenago estetika zentru batera doa emaztegaia probak

egitera. Behin aukeraketa egin eta gero, egunean bertan orraztu eta margotuko dute. Orrazkeraz arduratzen direnek, ilea bezperan garbitzea gomendatzen dute.

Gainera, orrazkerak jantziarekin bat egin beharko du: nolako jantzia halako orrazkera. Bestalde, aurpegi bakoitzaren ezaugarrietara hobeto egokitzen den orrazkera zein den aukeratzeko orduan, oso lagungarria izan daiteke espezialista baten laguntza.

Makilaia, bestetik, ez da oso deigarria izan behar. Guztiz kontrakoa gomendatzen dute: ahalik eta naturalena izan behar du.



DERMOESTETIKA INTEGRATUTAKO ZENTRUA

PILAR

*Estetika Mixto Berezitua
Kiromasajea, Sendagai Homeopatikoa*

Zubiaurre 24, 1. esk.
48260 ERMUA

Tel. 943 17 30 66

BEHIN BETIKO DEPILAZIOA LASER-AREKIN

Gizon eta Emakumeendako

- ✓ Zirugia estetikoa
- ✓ Liposukzioak
- ✓ Zimurrak
- ✓ Amelan mantxak
- ✓ Aurpegi tratamenduak
- ✓ Gorputzeko tratamenduak
- ✓ Masajeak
- ✓ Dantzak

E ELISA
EDERGINTZA

EIBAR
Ego gain z/g
943 20 76 33

CAPI

Bidebarrieta 5 EIBAR
Tel. 943 20 15 47

- Vitro-Kal azazkalak
- Tintea eta permanentea betiletan
- Emaztegaiendako makilajea
- Solariuma
- Mikropigmentazioa
- Aurpegirako tratamenduak
- Gorputzerako tratamenduak


MASAJEAK

- Kiromasajea
- Bizkarrerako masajea
- Kirol masajea
- Reflexologia...

Hidromasajea



Bapore bainua / Turkoa



Solarium-a 10 min.



JULEN argazkilaria
Argazki eta Bideo Erreportaiak




Urkizu 3 - EIBAR
Tel 943 12 71 91

Komentukoa, z/g
Tel. 943 17 06 71
Ermua (Bizkai)

ARGAZKILARITZA - BIDEA
Iñaki Galparsoro



Jayen
Argazki estudioa



Bidebarrieta 4 20600 EIBAR
Tel. 943 20 27 16

FELIPE LOIOLA
ARGAZKILARIA



Juan Gisasola 10, behea
Tel. 943 12 72 44
20600 Eibar

FOTO VIDEO-ZAPPING



Birjiñape 1, behea
Tel. 629 446 606



ARRATE
LORADENDA

Bidebarrieta 64
Tel. 943 20 38 32




Tel. 943 20 88 47
Isasi 18
EIBAR



Laumar

Bidebarrieta 1
Tel. 943 20 16 26



San Juan 1
Tel. 943 20 33 29






MARI CARMEN PARDO
Mikropigmentazioa



MARIMAR CEPEDA
(8063 Kolegiatu zkia.)



IRIDOLOGIA
Irisaren azterketa



MARGARITA ESTEBAN
(6180 Kolegiatu zkia.)



ESTETIKA
Tel. 943 70 18 28

ESTETIKA

Solariuma dutzarekin
Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak
Behin betiko depilazioa
Makilajea - Ikastaroak
Permanentea eta tintea betiletan

...

ZIRUGIA

Barizeak
Bularra
Lifting-a
Liposukzioa
Begi-poltsak
Sudurreko zirugia
Mantxa eta zimurrak
Zelulitis-a

...

KIROMASAJEA

Iridiologia
Kirol masajea
Digitopuntura
Erreflexuterapia
Elektroterapia
Masaje terapeutikoa
Naturopatia
Eskuzko terapia
Bentosa hematikoak
Shiatsu

...



ESTETIKA
San Juan 11, behea



RAFAEL ROMAN Irakaslea
NATUROPATA
Eskuzko terapia
FENACO 606 zenbakidun
kide profesionala.



ARANTZA GOROSABEL
(8066 Kolegiatu zkia.)

Ezkondu eta gero, bazkaria edo afaria... On egin!

Gure mugetatik kanpo gastronomiak ez du horrenbesteko garrantzirik izaten. Baina, Euskal Herrian behintzat, ospakizun garrantzitsuetan ez da janaririk falta. Bazkaria edo afaria izan, aukera zabala eskaintzen dute jatetxeetan.

Oso kontuan hartu behar da jatetxe askotan urte osoan jende ugari izaten dutela. Horregatik, sasoiz ibili behar da jangelan tokia hartzeko orduan. Jatetxe gehienetan alde aurretik egindako menuak eskaintzen dituzte, prezio ezberdinetakoak. Ezkongaien gehien atsegin dutena aukeratu eta hori izango da ezkontza egunean aterako dutena. Toki askotan probatzera ematen dituzte menuak, enkargatu baino lehen.

Edozein modutan ere, menu ohikoenetan entremesak (hotzak eta beroak), salda edo zopa, okela eta arraina sartzen dituzte. Mahaian eseri orduko, gonbidatu bakoitzak menua izaten du txarteltxo batean eta horrela badaki zer jango duen.

Eta, ondo jan eta gero, bazkaloste edo afaloste patxatsua aukeratzen dute batzuk, digestioa ondo egiteko. Beste batzuk, ordea, nahiago izaten dute dantza piskat egin ez kaloriak erretzen joatea.



ITZIAR ALBIZU

Ezkontza, Bataio, Jaunartze eta Enpresa bazkarietarako toki aproposena

MALLABARRENA

Jatetxea

Mallabarrena 6
48269 MALLABIA 943 17 10 73

Loiola auzoa 24 AZPEITIA Tel. 943 81 56 08

KIRURI

JATETXEA

EGUZKI ALDE

jatetxea


Goitondo poligonoa (Markinarako bidea)
943 17 16 44 MALLABIA

KANTABRIA

Ezkontzak, banketeak...

ARRATE
Tel. 943 12 12 62

SÁLEGI JÁTETXEA



250, 200, 90 ETÁ 30
LAGYNENÐAKO
4 JÁNGELÁ

BANKETEAĀ ETÁ KÁRTÁ

KOTXE ETÁ
AVTOBYSENDÁKO
PÁRKING-Á
BERTARÁINO



JÁNGELÁ BERRÍA
ERÁKITZEN
ÐIHÁRÐVGV.
LÁSTER ZABÁLIK!

JÁRÐIÑA. KOKTELERÁKO
LEKV ÁPROPOSA

ITZIAR (Sanpútegiaketen ondoan)

943 19 90 04

943 19 91 81



Sahara lurralde aberatsa, baina beste herriak aberasteko erabilia

Frente Polisarioak Euskadin duen ordezkartzak egindako kanpainari jarraituz, Elgetako Udalak, Euskal Herriko beste Udalekin batera Saharara bidaltzeko atun bilketa kanpaina bideratu du. Elgetan bildutakoak, 42 kg. izan dira. Antzuola, Elgeta, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza artean, Tona bat atun batu da.

Balorazioa oso positiboa izan da eta espero baino gehiago batu da.

Guk kanpaina hau aitzakia bezala hartuta Saharari buruzko zarraparra batzuk zabaldu nahi izan ditugu, guretzako urrutikoak eta arrotzak diren herrialdeei buruz gehiago jakitearren helburuarekin.

Saharako errepublikak Maroko, Algeria eta Mauritaniarekin mugatzen du (iparraldetik, mendebaldetik eta hegoaldetik). Ekialdetik, Atlantiar itsasoarekin mugatzen du.

Bertako lurra lehorra eta desertu erakoa da, lurrazpia berriz oso aberatsa da mineraletan, gas naturalean, petroleoan eta baita ur putzuetan ere. Bertako klimak bi mutur ikutzen ditu, gaez oso tenperatura baxuak eta egunez oso altuak.

Jendea tributan banatzen da eta gehienak nomadak dira.

1904. urtean Ipar Afrikaren kolonizazioa amaitu zenean, Mendebaldeko Sahara Espainiaren eskuetan gelditu zen eta inguruko herriak frantziar administraziopean. Denborarekin, Espainiak indar militarrik indartu zituen. 1970. urtean saharariar nazionalistak



Lurra aberatsagoa den lekutik lurtzoruaren gainaldea altxatu eta bizi diren kanpamentuetara eramaten dute lantzeko.

lehengo manifestaldia egin zuten, horrela 3 urte beranduago Frente Polisarioa sortzen da. Urte honetan ONUk autode-terminaziorako erreferenduma eskatzen du eta honela Hassan II.ak okupazio zibila eta "Marcha

Verde" deitzen du, ondorioen artean koka ditzakegu tentsio handia eta espainolen alde egitea. Azkenean, Espainiak 1975 urtean sinatutako akordioa dela medio, Sahara eman zuen. Ordu-tik, Marokok Sahararen bi

herenak ditu eta beste herena Mauritaniak. Momentu honetatik aurrera, frente Polisarioa bertan dauden okupatzaileen aurka altxatzen da. Lurraldearen defentsa armatua E.L.P.S.-k (Sahararen askatasunaren alde-

HAIZEA

TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256

Jesús Mari Montiel

ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

ko mugimendu nazionala) burutuko du.

Marokoren estrategia militarra Sahararen indar galtzea da eta bere laguntzaile modura Espainia dauka. Azken honek, Marokori Sahararen aurka borrokatzeko armak saltzen dizkio (125.000milioi pta.).

Gaur egun, errefuxiatuen kanpamenduak lau probintzian banatuta daude eta horietako bakoitza zazpi herritan aldi berean herriak auzoetan banatzen dira. Auzoetan lan batzorde herrikoiak burutzen dira: hezkuntza, justizia, gizarte gaiak, osasuna eta elikagaiak eta lanaren antolaketa.

Emakumearen garrantzia

Guzti honetan, emaku-

"Saharako ekonomia eta nekazaritzaren eragile eta bultzatzaileak emakumeak dira. Beraien auzoetan diruak ez du existitzen eta janaria neurrian banatuta dute. Gizonezkoak, aldiz, borrokatu egiten du"

meak oso paper garrantzitsua burutzen du, gizonezkoak borrokatzen aritzen baitira. Emakumeak sortutako egituraketa honi esker, herriaren atzerapausoa egotzi dute. Emakumeak heurak ere antolatuta daude, 1.974. urtean UNMS (Saharariar emakumeen elkartasun nazionala) eratu zuten herria aurrera ateratzeko helburuarekin.

Gaur egun, berta-

ko ekonomia eta nekazaritzaren eragile eta bultzatzaileak emakumeak dira. Beraien auzoetan diruak ez du existitzen eta janaria neurrian banatuta dute herrialde guztian. Ekonomia barnekoa da eta nekazaritza bizibide ezinbestekoa da. Emakume hauendako lan ezezaguna izan da nomadak izan baitira gaur arte. Orain eraiki dituzten herrietako lurra oso

lehorrak direnez, Mendebaldeko Sahara (sahararrak askatutako eremua) aldeko Hamada herritik, lurra aberatsagoa den lekutik lurtzoruaren gainaldea altxatu eta bizi diren kanpamenduetara eramaten dute lantzeko. Bertatik lor-

tzen duten ekoizpenaren gehingoa ospitaleak, eskolak, zaharrak, haurdun dauden emakumeak hornitzeko gordetzen da eta gainontzekoa amankomunean duten despen-tsarako.

Landatatuko barazkiak ureztatzeko arazoak dituzte, lurrazpian dagoen urak mineralak, gatza eta lur askokoa da, horregatik ezin dute zuzen-zuzenean erabili. Emakumeek, ura drenatzeko eta gatzgabetzeko ubideak eraiki dituzte, horrela tantaka jarduten den ureztatze sistema eraiki dute. Honez gainera, dromedarioen gorotza, lurraren ongari bezala erabiltzen dute eta gameluarena sukaldarako erregai bezala.

Poliki-poliki, beste herri batera ikasketak egitera joan izan diren gizakumeak nekal injieniritza egin da bueltatu direnari esker, lan hauek beraien eskuetara pasatu dira. Animaliak ere bertaratzea lortu dute, gamelua eta ahuntza; badakite, anilmalia probetxuzko baliabidea dela. Ardura banatze honek emakumea hezkuntzan, osasunean eta administrazioan burubelarri sartu da.

Espainiar kolonizazioaren ondoren osasungintzan espezializatu beharra ikusi zenez, Sahararen herrialde adiskideak diren Kuba eta Algeriara bidali zituzten



Atun lata mordoska batu dira Elgetan Sahara aldera bidaltzeko.

EH
Euskal Herritarrok

burujabetza bidean
bai euskal herriari


abstentzinoa

hainbat neska eta mutil gazte medikuntza ikastera. Lehenengo lizentziatuak heldu arte etxekondreak ziren arduradunak. landareei buruz zekitenari esker erizain lanak egiten zituzten. Osasun zentru txikiak eraiki zituzten eta guztien koordinatzaile gisa "Saharauiar Ilargi Erdi Gorria" deituriko erakundea sortu zuten (hemengo Gurutze gorriaren baliokidea). Iaz eraiki zen Ospitale Nazionala, bertan pediatria, ginekologia, obstetrizia zerbitzuak dituzte. Bertatik herritarrei prebentzioari buruzko kurtsuak antolatu dituzte oinarritzko ezagutza izan dezaten.

Nahiz eta egituraketa nahiko antolatua izan baliabideak eta pertsonala oso urriak dira, honek beste herriekiko dependentsia dakar.

Etorkizuneko Sahara

Garai berean, espainiarrak zeudenean, gizonetakoak ziren oinarritzko ikasketak burutzen zituztenak, emakumeak berriz, beste zeregin batzuetarako ziren, ezkontzeko... Beranduago, emakumeek behin-behineko eskolak ezarri zituzten aire librean. Esaterako, idatzia aretan egiten zuten arbelen faltan. Beranduago hezkuntza programa bat osatu zute: hartzaindegiekin, eskolaurrea, lehen eta bigarren hezkuntza burutzeko helburuarekin.



Saharan emakumearen papera garrantzitsua da oso.

Zoritarrekoa da egituraketa guztia guda baten aurrean sortu behar izana.

Aurtengo uztailean mendebaldeko Saharan egitekoa zen autodeterminazioari buruzko erreferendumaren aurrean NBEak bozketa atzeratzea erabaki du. Kofi Annanen ustez, erakunde honen idazkaria, 150.000 apelazio jaso eta gero ezinezkoa da eta beste egun bat ipini

beharra dago.

Sahararen erreferendumerako nazio batuen misioak aurkeztutako txostenari egindako apelazioak behin eta berriz oztopatu nahi dutenak direla diote erakunde honetakoek.

Egindako erroldaren aurkako erreklamazioak zerrenda horretatik kanpo geratu den jendeak aurkeztu ditu. Gai hau berau da erreferenduma-

ren inguruko ezadostasunik handiena. Frenete Polisarioaren arabera, 1.975ean Maroko sartu aurretik bizi zirenek baino ez dute parte hartu behar bozketan, harrezkero Rabatek milaka lagun bidali ditu Saharara bizitzera. Marokoko Gobernuak guztiak kontutan hartu behar direla dio.

Frenete Polisarioaren arabera Rabaten trikimailuak dira aurkeztutako alegazioak. Haseratik uste zen erreferenduma atzeratzea, baina oraingoan beste bozketa egun bat ez jartzek sortu du harridura. Honek Marokoren eta Polisarioaren arteko harreman eskasa adierazi nahi du eta Mendebaldeko bake prozesua oso momentu txarrean aurkitzen da.

"Aurtengo uztailean mendebaldeko Saharan egitekoa zen autodeterminazioaren gaineko erreferendumaren aurrean NBEak bozketa atzeratzea erabaki du."

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

VIVO

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

Janari denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

ETB Kantxa 4t'erdiko txapelketarako izenematea mugatua izango da aurten

Izena emateko epea ireki da jadanik

Oskarbikoek txapelketan parte hartuko duten pilotarien kopuruari muga ezartzea erabaki dute. Honek txapelketan jardungo duten pilotariak gutxiago izatea ekarriko du. Iaz 350 izan baziren parte hartu zuten pilotariak aurten 200 bat izango dira. Modu honetan, iaz izan zen partidua gehieria eragotzi nahi da. Hasiera batean, klub bakoitzeko gehienez pilotari kopuru zehatz baten partehartzea onartuko da. Oraindik erabakitze dago aurtengo partidak Elgetako pilotalekuan edo iaz bezala inguruko beste herriren batean ere jokatu diren. Izen emateko epea Martxoaren 10ean amaituko da. Bitartean Oskarbiko pilotariak Deba Arroko txapelketa eta Euskadiko Klub arteko txapelketetan murgilduta diardute.



Pilotari asko igo diren arren profesionalentara maila ona ikusteko aukera izango dugu Elgetako pilotalekuan

Futbitoan azkenean zazpi talde mutiletan. Nesketan talderik ez aurten.

Zazpi taldek hasi dute azkenean Elgetako futbito txapelketa. Antolatzaileek kopuru handitu zitekeela uste zuten arren azkenean zazpi talde hauek izango ditugu frontoi osteko kantxan: Astatopruak, Bar el Arco, H.H.H., Nidiosesalbix, Kiyons, Txapela eta Vicios. Beti bezala txapelketa bi itzulitara jokatu da eta lau lehenengok erdifinalak jokatu dituzte. Nesken mailan berriz ez dute bigarren talderik osatzerik izan eta aspaldian ez bezala ez da nesken talderik izango.

Txirrindularitza: Xabier Aranguren jubenetako azken urtean

Martxoaren 5ean ekingo dio Xabierrek aurtengo txirrindularitza denboraldiari. Eibarren lastertuko du aurtengo lehenengo lasterketa. Txirrindularitzan hasi zen talde berean jarraituko du Xabierrek, SUMOFICen, alegia. Iaz, denboraldi polita egin zuen. Lasterketa gehienetan aurrean sartzen zen Geldiune bat izan zuen arren, tendinitis batek eraginda, denboraldia ondo joan zitzaion. 18 urte bete dituen gazte honek, afizionatu mailara eramango duen denboraldi polita egitea du helburu. Ia zorteak laguntzen dion.

IRAMA

ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Janire Lazkano bigarren doa Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketan

Eibarko Ipurua gimasia erritmiko talderekin lehiatzen du Janirek

10 urte betetzear dagoen neskatila honek ondo hasi du Gipuzkoako gimnasia erritmiko txapelketa. Momentuz, bigarren doa bakarkako ariketen atalean. Oraindik fase batzuk falta dira txapelketa amaierarako. Atal honetan Janirek egin dituen ariketak aparailu gabekoa izan dira. Geroagoko faseetan aroarekin arituko zaigu. Adin hauetan oraindik ez dituzte, zinta, maza, baloi, etab.ekin konpetitzen. Aurrerago erabiliko dituzten tresnak izango dira, urteekin esperientzia hartutakoan. Bitartean, entrenamen-

duetan erabiltzen dituzte. Astean lau aldiz joaten da Janire entrenamendura Eibarko polikiroldegira. Bere entrenatzailea Tatiana Nagornaia errusiarra delarik. Banakako ariketetan bigarren badoa, berdina esan dezakegu taldekako ariketetan. Taldekako ariketetan Eibarko Ipurua gimnasia erritmiko taldea bigarren doa (Janire talde horren partaide da). Oraindik guztia erabakitzeko dago eta ea orainarte Elgeta aldean ezezaguna izan den kirol honetan txapel-dunik izaten dugun. Poztuko ginateke.



Janire, duela 2 urte Elgetako plazan egindako saioan.

Estampaciones Elgetak Eibarko Saskibaloitxapelketa irabazi du lau partidaren faltan

Guztira 12 partida jokatu ditu eta ez du bakarra ere galdu

Elgetako saskibaloitaldeak ez du azken momenturara arte itxaron beharrik izan Eibarko saskibaloitxapelketa irabazteko. Guztira 12 partidu jokatu dituzte eta liga amaitzeko lauren faltan ez dute bakarra ere galdu. Inoiz baino errazago nagusitu zaizkie Elgetako saskiba-

loilariak txapelketako hainbat talderi. Alde bate-tik, partehartzaileen beherakada (9 talde aurt-en) eta iaz punta-puntan zeuden bi talde hobere-n federatzeak bidea asko erraztu die elgetarrei. Honek ez die kentzen meriturik eta txapelketa irabaziz arren joko

eskas xamarrarekin hasi baziren ere, poliki-poliki maila ona erakutsi dute. Azken partida, bigarren zihozaren aurka jokatu zuten eta 20 puntuko aldearekin irabazi zuten. Orain, talde honi lau garaipeneko alde ateratzen dio. Elgetakoek nahiz eta hurrengo parti-

du guztiak galdu, txapel-dun izango dira. Ustezko berdinketa baten aurrean ere, bigarren talde honek ez du zereginik. Bi aldiz galdu baitute elgetarren aurka. Gauzak honela aurtengoarekin Eibarko txapelketa irabazten duten laugarren aldia izango da.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Gaztetxiak 4 urte egitten dittuala eta, zein da zuk horren gaiñian dakazun ustia?



Josu Azkarate
(19 urte) Bihargiña

Neretzako lehenengo bi urtetan ondo zoian, baiña beste bi urtetan beherruntz jua dala uste dot. Nik uste dot Gaztetxia hobeto juateko grupo makarriauak ekarri biharko zittuala. Bestela, herrixai asko aportau dotza.

Gaztien organizaziño moduan uste dot kriston lana egiñ debela, bai kontzertuekin edo baita asunto kulturalekin. Nik barruan ez dakit zelan ibiliko diran, baiña kanpotik behintzat lan oso ona ikusten da.

Nere proposamen moduan, Gaztetiak taberna moduan funzionau bihako lukela da. Etorkizuna seguru daka.

Astier Alberdi
(32 urte) Bihargiña



Fernando Zenitagoia
(42 urte) Bihargiña

Nik oiñ arte oso ondo ikusi dot, hori bai gauza baten ikusten dot gaizki, Gaztete inguruan egoten dan zikinkerixia. Puntu horretatik aparte fenomeno ikusten dot, gaiñera ideia be oso ona da. Neretzako etorkizunerako beste lokal bat haundixuaua bihako da, hobeto prepara.uta.



Jone Uribekebarria
(54 urte) Bihargiña

Nik ikusi dotena behintzat oso positibua izan da, beti ahal da gehixau, baiña oso ondo dago egiñ debena. Zulotxo bat ikusten dot edade batetik aurrerakuak ez diralako juaten, uste dot hor zeozer egiñ biharko zala jende hori be Gaztetera juateko.

Asko ez dot eza gutzen, baiña kanpotik ikusten danez izugarrizko lana egin dabe. Emoten danez oso ondo funtzionatzen dau. Ez daukat proposamen berezirik.

Sonia Jdigoras
(27 urte) Bihargiña



Kanpotik ikusitta, lan asko egin dala pentsatzen dot, ekintza asko antolatu dittuela eta jentia lanerako asko mobidu dala. Dana dala, uste dot, lanian ibilli dan jentia ez dala hain umia eta atzetik datozenek ikusi egin biharko da zelan moldatzen diran.

Elena Elkoro
(35 urte) Bihargiña



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

P a t x i Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

ARIES: Larregi jan dok/don. Oiñ badakik/badakin damututa: dieta eta kirola.

.....

TAURUS: Hau hillabetiau ona izango dok/don hiretako, bueno hasi hadi aprobeztatzen momentua.

.....

GEMINI: Parrandaz-parranda ibiltziak ondorixuak ekartzen jittuk/jittun. Orduan baldin badakik/badakin zeri begira hago?

.....

CANCER: Aste dana aste azkenian pentsatzen bahago ez dittuk/dittun eginbiharrak beteko. Ez estutu eta laga berez-berez etortzen da-eta.

.....

LEO: Aurreratu eta aurreratu, noiz pentsatzen dok/don gastatzia? Aste santuan biajen bat egindda edo bate-ronbati erregalo bat egindda?

.....

VIRGO: Buruan nahaste haundixa dakak/dakan, baiña trankil, hire bihoztak bajakik/bajakin ze gura daben.

.....

LIBRA: Gurasuak alde egin dabela eta ez haizela zartainakin konpon-tzen? Badakik/badakin ikasi edo bes-tela segi ogitartekuak jaten.

.....

SCORPIUS: Gabonetan diru larregi gastau dok/don? Badakik/badakin oiñ ez pasau beherapenetan.

.....

SAGITARIUS: 2.000.urtia datorrela eta mundua aldatu bihar zala eta...zenbat berba. Eta oiñ zelan ikus-ten dok/don heldu danian?

.....

CAPRICORNUS: Hire urtebetetzia jatok/jaton eta danak zoratuta daka-zak/dakazan erregaluorrek. Ointxe olentzero pasau barri eta hola?

.....

AQUARIUS: Aspaldiko maitasun bat berreskuratu gura badok/badon, kar-nabaletan mozorrotuta ahalegintzia ez dok/don txarto egongo.

.....

PISCIS: Hire aldetik be ipini biharko dok/don bestien konfiantzia lortzia nahi badok/badon. Behintzat saiutu hadi.

.....

Pako Ormaetxea (40 urte) Bihargiña

Zertan diharduzu?

Eskopeta asko egitten.

Egun normal baten lanian ez diharduzunian zertan? Erosketa batzuk egiñ eta egin biharreko gauzak egitten dittut.

Eguneko momenturik goxuea? Eguneko poteua.

Zer jantzi bihar dozu haratuztietan? Ez naiz jantzi bihar.

Ze kirol egitten dozu? Ez dot egitten kirolik.

Domeketan erropa onena-kin urtetzen dozu? Ez, ez dosta inporta izaten.

Pasauko ziñuke astebete ezebe jan barik? Ez dot uste.

Zerek emoten dotsu buru-ko miña? Atxur on batek.

Kubako puro eder bat ala Montekristo bat? Farias bat.

Definidu: Bariku gaba; Zapatu gaba; Astelehen goixa;

Asko gustatzen jata; Baitta, baitta; Ondo sentitzen naizen egun bat da.

Bideoklub baten ze pelikula hartuko ziñuke? Hor gaixan ez nago bape jantzitta, ez neuke jakingo zer hartu.

Zer idatziko ziñuke folio zuri baten?

Inspirauta banengo, gauza politt asko, bestela ez neuke jakingo zer idatzi.

Gauza pikantiak gustatzen jatzuz? Zer? Bai asko. Danetik pixkat.

Hamburgesa bat ala pizza bat?

Segun nundik hasten naizen... hasten banaiz pizzatik ba bestian amaittuko dot, baiña bixak dakaraz gustokuak.

Zer euki bihar dau neska batek zuretako? Neuk be ez dakit zer euki bihar daben.


Juergak herrixan ala kanpuan? Tokatzen dan lekuan.

Hamabostian behin zer egingo ziñuke? Juerga on bat, baiña juerga erdixakin be konfor-matzen naiz.

Gabaz egitteko gauzaik onena? ...?????????...

Zure bizitzako filosofixia?

Dakarazen 40 urtiak ikusitta, ahal dan onduen pasat-zia, bi egun bizi bihar gara eta.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156



Haustekundiak

dago, eta berez eta teori-
xan gauza txarra ez
danez, horri helduko
dotsagu.

Haustekundiak atsedetik
barik datoz bata bestian
atzetik. Oinguan, Aznarri
botatzeko (ezer botatzeko
ez, botua emoteko) arra-
zoiak idatzi bihar nittuan,
baiña esanak esan, kasu-
rik egingo ez dostasue-
nez, ez dot aurrera jarrai-
ttuko hortik bidetik.

Honezkero, era-
bakitta eukiko dozue
botua emon ala ez, eta
emotekotan, zeñi emon.
Orduan, horren gaiñian
jardutia be alperrik izan-
go da. Abstenitzeko arra-
zoiak gero eta haundixa-
guak dira, baiña ez baka-
rrik martxoko eleziñotan,
egitten diran danetan
edo, gehixenetan behin-
tzat. Hala ta be, botaziño-
tik botaziñora alde ederra

Lau urtetik behiñ
botua emon, eta gero, hor
konpon, agintzen dabe-
nak nahi dabena egitteko
libre. Ez dozkie galdetu-
ko, ez, zeozer egin bihar
danian hori egittia nahi
dan edo ez, eta egitteko-
tan nun, zela, eta abar.
Herrixak hala nahi dabela
eta kitto, baiña herrixari
preguntau barik. Eta
askotan —beti—, jendiak
zer nahi dabena jakitzeko
modurik onena zuzenian
galdetzia izaten da. Beste
leku batzutan galdetzen
da, eta herritarrak auke-
ria izaten dau bere iritzixa
emoteko, azken batian,
erabakitzeko. Hori beroi
egitten da Suitzan, Ita-
lian,...

... eta Euskal
Herrixan. Ez, ez! Ez doz-
kue, ez, oraindik galdetu,
eta pixkaten bez galdetu-

ko euskaldunak, euskal-
dun-españolak, español-
lak, español-euskaldu-
nak, frantses-euskaldu-
nak, naparrak, napa-
españolak, napa-euskal-
dunak edo zer izan nahi
dogun. Baiña, Euskal
Herrixan bertan hasi dira
leku batzutan jendian iri-
tzixa eskatzen zeozer egin
bihar danian. Tolosan
kiroldegixa nun jarri
aukeratu barri dabe, eta
Ondarruan arraiñak sal-
tzeko lonjia nun jarri
aukeratuko dabe uda
aldian.

Gatxa ez dau
emoten behintzat. Dago-
zen proiektuak edo hartu
biharreko erabakixak
zeintzuk diran azaldu,
aukera bakoitzaren alde
onak eta txarrak jendiai
jakinarazi, eta gero, jen-
diak aukeratzen dabena-
rekin aurrera egiñ. Modu
batera edo bestera, herri-
tarrak be eduki bihar
leukie aukeria gauzak

proposatzeko, ez bakarrik
Udalak edo gobernuak.
Boto elektronikoa be hasi
ziran probatzen orain
dala gutxi, eta hori izan
leike bide erraz bat horre-
lako kontsultak egitteko.

Gehixenetan par-
tidu bati emoten jako
botua; baina, gero, ez
daukagu zertan amen
esan eta konforme egon
bixar-etzi hartuko diran
erabakixekin. Pograme-
tan normalian gauza oro-
korrak jasotzen dira,
gutxi gorabeherako
asmuak; baiña, gero,
herrixantzako edo pro-
bintzia-erkidego-nazio-
estatu-proiektokomun-
konpartido-arentzat
inportantiak izan leike-
zan erabakixak hartzera-
kuan, edo aldeko eta kon-
trako jarrerak indartsuak
diranian, zergaittik ez
galdetu herrixari? Interes
ekonomiko-politiko-...?

**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO
erraminta makina
Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako
babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67

**Martxoak 12, hauteskundeak
Eman botoa EAJ/PNVri**

**Zeuk
erabaki**



Goibekokalek 5 urte

Afarixa Tapia, Leturia eta Patxikiñ
Jntxorta elkartian apirillan 1ian



Preziua: 2500pta.

Jzena emoteko azkenengo eguna Martxuan 25a
Haizea, Patxi eta Goibekokalen
Haizea, Patxi eta Goibekokalen



Plastikozko ontziak



Latak



brickak



...Zure esku dago

"Buertaka - Buertaka Birziklatuz"

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegeiak ere denbora luze gorako izango ditugu.

Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu
Guztion mesedetan izango da



DEBA GARAIO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETxebizitzA ETA
INGURUGIRO SAILA
DEPARTAMENTO DE
ORDENACION DEL TERRITORIO,
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Agricultura y Medio Ambiente

